

## ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

<p><b>APEUEN ERABILERA HEGAZTIEN ERAZTUNKETA ZIENTIFIKOAN. DEKALOGOA</b></p>
--

Bertsioa: 2021eko otsaila

Dokumentu hau honela aipatu:

*Aranzadi Erantzuntze Bulegoa, 2021. Apeuen erabilera hegaztien erantzuntza zientifikoan. Dekalogo, 2021eko otsaileko bertsioa. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.*

## DEFINIZIOAK

Eraztunketa zientifikoan batzuetan apeuak erabiltzen dira. Apeuen erabilerak zenbait onura dauzka, hala nola: harrapatutako aleen kopuruaren emendioa, harrapatzen zailak diren espezieak erakartzea, etab. Dena den, apeuek erabilerak, kontutan hartu behar diren hainbat arazo sor litzake.

Mota desberdinetako apeuak bereiz daitezke:

- HEGAZTIEN KANTUEN GRABAZIOAK. Harrapatu nahi diren espezieen kantu edo apeuak gailu mekanikoak erabilia errepikatzean datza.
- ERAKARGARRI SUERTATZEN DIREN ANIMALIA BIZIEN ERABILERA. Beste modu batetan harrapatzea oso zaila edo ezinezkoa den espezie bat erakartzeko, animalia bizi bat edo gehiago erabiltzean datza.
- ELIKAGAIAK. Hegazti taldeak erakarri eta harrapatu ahal izateko mota desberdinetako elikagaiak (haziak edo kakahueteak esaterako) jartzen dira.
- URA. Honakoan, ingurune lehorretan hegaztiak harrapatu ahal izateko ura bat jartzen da.
- APEU ARTIFIZIALAK. Material desberdinak erabilia (egurra, plastikoa, beira-zuntza, etab.) eraikitako zehaztasun desberdineko hegaztien kopiak erabiltzen dira.

## DEKALOGOA

BETI KONTUTAN HARTU BEHAR DIRENAK:

1. Printzipioz apeuen erabilera ez dago onartuta eta beraz, hauen erabilpena salbuespenezkoa izan behar da. Hortaz, apeuen erabilerak erabat arrazoituta egon behar du eta beti, zientifikoki bermatutako proiektu baten baitan egin behar da.
2. Apeuak erabili ahal izateko eskudun den administrazioaren baimenak izan behar dira. Hegaztiak eraztuntzeko baimenak ez du zuzenean apeuak erabiltzeko baimena dagoenik esan nahi. Gainera, apeu biziak erabiltzean kontu handi izan behar da.

3. Laginketa Gune Iraunkorretan eta epe luzean jasotako datuen konparaketa eskatzen duten antzerako proiektuetan ez da apeurik erabili behar. Arau honek janleku eta isurbide inguruetan salbuespen bat izan lezake, beti ere, elikagai edota ur eskuragarritasuna konstantea eta neurtua bada.
4. Apeuen erabilerak itu-espeziearengan zein inguruko beste espezieengan izan dezakeen eragin negatibo potentziala neurtu behar da.
5. Proiektuaren emaitzetan izan lezakeen eragina ere (positiboa zein negatiboa) neurtu behar da. Apeuen erabilerak harrapaketetan alborapen garrantzitsua eragin lezake; proiektuaren helburuaren arabera, ez litzateke errealitatearen lagin adierazgarria lortuko eta hortaz, ikerketaren ondorioak erabat baliogabetuko lirateke.
6. Soinu-apeuak erabiltzerakoan, ez jarri bolumen altuegian. Erreproduzio-aldi luzeegi eta errepikakorrak ekidin eta isiluneeekin tartekatu. Ugal-garaian ar lurraldekoi baten erabilerak adibidez, itu-espezieak eremua uztea ekar dezake.

#### ANIMALIA BIZIAK ERABILTZEN DIRENEAN KONTUTAN HARTU BEHARREKO GOMENDIO GEHIGARRIAK:

7. Beste aukerarik ez dagoenean bakarrik erabili behar dira; hau da, aleak harrapatzeko beste apeu mota bat erabilita emaitzarik ez dagoenean bakarrik erabili litezke.
8. Apeu bezala animalia basatien jabetza eta erabilerarako, ziurtagiri ofizialak izan behar dira. Erantzutzeko bermea izateak, **EZ DU INOIZ APEUA BIZIAK IZATEKO BAIMENIK EMATEN.**
9. Apeu-bizi bezala, gatibutasunean hazitako banakoak, Berreskurapen Zentroetako (berreskuragarriak ez direnak) aleak edo antzeko baldintzetan jasotakoak bakarrik erabili daitezke. Beti ere, animalia hauek gatibutasunean mantentzeko dagozkion berme zientifiko, etiko eta administratiboak izan behar dira.
10. Hegaztien erantzuntze zientifikoko laginketak dirauen bitartean, apeu-biziek ahalik eta estres maila baxuena izan dezaten, beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dira.